

# Baserría/ El caserío

Agerrebekoa baserriko aintzina



San Martin parrokia-elizaren inguruan sortutako herrigunean kokatzeaz gain, gainerako baserri gehienak bailaratik zehar sakabanatuta kokatzen dira. Udalerrian ditugun ia 150 baserrien artean landa-arkitektura tradizionalari lotutako elementu esanguratsuak mantentzen dituztenen artean honakoak dira azpimarratu beharreko baserriak. Landa-eremuan:

Agerrebekoa, Ernataritz, Galarragoena, Iraolaberri, Iturriagagoikoa, Loidiazpikoa, Telleri, Urteagazar... Hirigunean, berriz: Borondegi, Etxeberri, Apaizetxea...

La mayoría de los caseríos de Errezil se ubican en el centro urbano y esparcidos por el valle. Cerca de los 150 caseríos siguen manteniendo elementos significativos de la arquitectura rural vasca, entre los cuales destacan Agerrebekoa, Ernataritz, Galarragoena, Iraolaberri, Iturriagagoikoa, Loidiazpikoa, Telleri, Urteagazar, Borondegi, Etxeberri, Apaizetxea...



Agerrebekoa



Ernataritz



Galarragoena



Iraolaberrí



Iturriagagoikoa



Telleri

Gaur egun nekazaritza eta abeltzaintzan oinarritutako jarduera ekonomikoak indarra galdu du, eta populazioaren sektore nagusiak, Errezilen bizi arren udalerritik kanpoko industrian zein zerbitzu alorrean, edo bertako urrian, egiten du lan. Baserri ugari etxebizitza soil bilakatu dira, astebururako bigarren etxebizitza ez denean.

La agricultura y la ganadería han perdido fuelle en los últimos años y la gran mayoría de caseríos se han convertido en meras viviendas.

Hala ere, landa-ingurunearen berezko jarduerak (nekazaritza, abeltzaintza eta baso-ustiapena) oraindik bizirik diraute, nahiz eta jarduera osagarri moduan izan. Ibilbide honetan zehar garai hartako hainbat baserri ikusi ahal izango dituzu gaur egungo beharretara eta bizimodura egokituta, Errekondo, Idoiaga, Basabegarrena, Loiarte, Lizarreta...

Durante este recorrido podrás ver algunos de los caseríos de aquella época se han adecuado a las necesidades y modo de vida de hoy en día, como Errekondo, Idoiaga, Basabegarrena, Loiarte, Lizarreta...



## Bertsoa

*Betidanikan izanik gure  
elikaduran sostengu  
azken aldian nahiz ta bertatik  
bizi zen asko aldendu  
ezingo zaio bereganatu  
duen balorerik kendu  
ze lehen bezain emankor eta  
dotorea jarraitzen du  
Errezildarrak zer ginateke  
baserririk ez bagendu*

Bertsoaren egilea: Loidi Saletxe



## Baserrietako bizimodua

Baserria bertako bizilagunen lankidetzaren emaitza izan da beti. Bizimodu oso neketsua zen, lanean gogor eta gogoz egin behar izaten zuten aurrera egin ahal izateko. Batez ere ogia eta lekarietan oinarritzen zen lehengo gizartearen dieta, nahiz eta gaztainak ere bere garrantzia izan, fruta-arbolen artean sagarrak zuen moduan.

El caserío ha sido siempre el fruto de colaboración de sus habitantes. La vida en el caserío era agotadora, y es que era necesario trabajar duramente para salir adelante. La dieta estaba basada, sobre todo, en pan y legumbres, y las castañas y el manzano también eran importantes.

**"Ogia eta lekarietan oinarritzen zen lehengo gizartearen dieta, nahiz eta gaztainak ere bere garrantzia izan, fruta-arbolen artean sagarrak zuen moduan."**





## Baserrietako bizimodua

Baserria bertako bizilagunen lankidetzaren emaitza izan da beti. Bizimodu oso neketsua zen, lanean gogor eta gogoz egin behar izaten zuten aurrera egin ahal izateko. Batez ere ogia eta lekarietan oinarritzen zen lehengo gizartearen dieta, nahiz eta gaztainak ere bere garrantzia izan, fruta-arbolen artean sagarrak zuen moduan.

El caserío ha sido siempre el fruto de colaboración de sus habitantes. La vida en el caserío era agotadora, y es que era necesario trabajar duramente para salir adelante. La dieta estaba basada, sobre todo, en pan y legumbres, y las castañas y el manzano también eran importantes.

**"Ogia eta lekarietan oinarritzen zen lehengo gizartearen dieta, nahiz eta gaztainak ere bere garrantzia izan, fruta-arbolen artean sagarrak zuen moduan."**

